

BUENOS AIRES 2017-2C

Argentinako hiriburuan izandako esperientzia kontatzera noakizu. Esatea 2017ko abuztutik abendura joan nintzela bertako bigarren lauhilekoa burutzera (Gasteizko lehen lauhilekoa). Hego-hemisferioko herrialdea izanik, abuztuan negua zen Argentinan baina nahiko eramangarria iruditu zitzaidan (Buenos Airesen 10 gradutik gora beti).

Bertara joan baino lehen hainbat prestakuntza egin behar dira; behar beharrezkoak dira norberaren dokumentazioa eta Gasteizko zein Buenos Aireseko eskakizun guztiak eguneratuak izatea. Mugikortasun arduradunak beti izango dituzu prest laguntzeko zalantzaren bat izanez gero. Argentinan lauhileko bat zein bi egoteko, bisatua ateratzea nahitaezkoa da baina prozesu guztia Buenos Airesen bertan egin daiteke.

Hegazkinetako txartelak ateratzean, hainbat webgunetan bilatzea gomendatzen dut eta ahal bada irteera baino hilabete bat lehenago ateratzea merkeagoak izateko. Argentinan sartzeko, beharrezkoa da joan-etorriko txartela izatea. Urtarrilaren amaierarako bueltako txartela erostea da nire gomendioa, urtarrileko eguraldi ona aprobetxatzeko bidaiatzeko.

Ostatuaren atalean, aukera asko daudela esan beharra dago. Hala ere, Buenos Aires osoa bezala, nahiko garestiak dira alokairuak. Nire gomendioa lehen bi asteak hostatu batean ematea da eta aprobetxatzea bertan zaudela leku on bat bilatzeko. Ikasle gehienak San Telmo, Recoleta eta Palermoko auzoetan bizi dira.

FI-UBA unibertsitatea oso ona da. Bere maila oso altua da eta izen ona du mundu osoan. Baliabide faltak irakasleen maila onak zuzentzen du. Asistentzia nahitaezko baldintza da kurtso amaieran irakasgaiak aprobatzeko. Irakasle gehienak langileak dira ere, goizez langile arratsaldez irakasle. Ikasleentzako abantaila handia da hori, teoria baino askoz gauza gehiago ikasten baitira.

Hiriburua kulturalki oso anitza da, egunero daude gauzak egiteko beraz ez zara aspertuko. Argentina, hain handia izanik, leku asko dauzka bisitatzeko: Mendoza, Salta eta Jujuy, Iguazuko ur-jauziak, Patagonia,... eta Uruguay, Txile edo Brasil nahiko erraz bisitatzeko aukera ere. Ikasle elkarteek hainbat bidai eta ekintza antolatzen dituzte astero.

Argentinarrei eta latinoamerikako jendeari buruz gauza onak esan ditzazket bakarrik. Harrera ona eman zidaten eta oso ondo portatu ziren nirekin zein ezagutu nituen ikasle guztiekin. Laster egingo dituzu bertako lagunak eta Asado on bat egingo duzue.

Mugikortasun programa batean parte hartzea oso interesgarria iruditzen zait eta ikasle guztiei gomendatzen diet. ANIMATU!

Iñaki, 2017ko abenduan